BESTELAKO XEDAPENAK

OSASUN SAILA

5287

AGINDUA, 2014ko abenduaren 1ekoa, Osasuneko sailburuarena, Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Euskal Kontseiluko kideak izendatzeko dena.

319/1999 Dekretuak, abuztuaren 31koak, Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Euskal Kontseilua sortu eta prestakuntza hori egiaztatzeko sistema arautzeko denak, 3.1 artikuluan ezartzen du Osasuneko sailburuak izendatuko dituela Kontseiluaren osoko bilkurako kide titularrak eta ordezkoak.

2000ko uztailaren 17ko Aginduaren bidez, osoko bilkurako kideak izendatu ziren, berritu zitekeen bi urteko aldirako.

2003ko otsailaren 18ko Aginduaren bidez, osoko bilkurako kideren bat berritu egin zen, Osasun Sailaren egitura organiko eta funtzionala aldatu zuen azaroaren 6ko 268/2001 Dekretua argitaratzearen ondorioz.

Osasun eta Kontsumoko sailburuaren 2011ko urriaren 10eko Aginduaren bidez, Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Euskal Kontseiluko kideak izendatu ziren.

Ordutik hona, Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Euskal Kontseiluaren osoko bilkura ez da berritu. Horrenbestez, bidezkoa da orain berritzea, Etengabeko Prestakuntzako Euskal Kontseilua sortzeko Dekretuan jasotakoa gauzatze aldera, eta, indarrean dagoen legediak ematen dizkidan eskumenak erabilita, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– 2011ko urriaren 10eko Aginduaren bidez egin ziren izendapenen ordez, honako hauek izendatzea abuztuaren 31ko 319/1999 Dekretuan jasotako Kontseiluaren osoko bilkurako kide titular eta ordezko:

Lehendakaria: Guillermo Viñegra García jauna, Osasuneko sailburuordea.

Bokalak:

● Maria Luisa Arteagoitia González andrea, Osasun Saileko Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko zuzendaria.

● M.ª Belén Fernández González andrea, Medikuen Elkargo Ofizialen ordezkari; ordezkoa Angel Alayo Arrugaeta jauna.

● Juan del Arco Ortiz de Zarate jauna, Farmazialarien Elkargo Ofizialen ordezkari; ordezkoa Imanol Monteagudo Arrazola jauna.

● M.ª Pilar Lecuona Ancizar andrea, Erizainen Elkargo Ofizialen ordezkari; ordezkoa Hosanna Parra Vinós andrea.

● Agurtzane Meruelo Conde andrea, Odontologo eta Estomatologoen Elkargo Ofizialen ordezkari; ordezkoa José Miguel Rodríguez de Gordoa Armentia jauna.

● Ignacio García Alvarez jauna, Albaitarien Elkargo Ofizialen ordezkari; ordezkoa José Manuel Etxaniz Makazaga jauna.

● Miren Dorronsoro Iraeta andrea, Osasun Saileko Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzaren ordezkari; ordezkoa Jose M.ª Arteagoitia Axpe jauna.

● Maria Ramos Márquez andrea, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua erakunde publikoaren ordezkari; ordezkoa Natividad Ruiz de Loizaga andrea.

● Andoni Arcelay Salazar jauna, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua erakunde publikoaren ordezkari; ordezkoa Ana M.ª Porta Fernández andrea.

● Igor Zabala Rementeria jauna, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua erakunde publikoaren ordezkari; ordezkoa Rosa M.ª González Linares andrea.

● Francisco Serna Rodriguez jauna, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua erakunde publikoaren ordezkari; ordezkoa Ana Patricia Pujana andrea.

● Ana M.ª Chueca Ajuria andrea, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua erakunde publikoaren ordezkari; ordezkoa M.ª Angeles Cidoncha Moreno andrea.

● Fulgencio Aledo Amorós jauna, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen (IVAP/HAEE) ordezkari; ordezkoa Miren Irune Barbero Olivares andrea.

● Jorge Arévalo Turrillos jauna, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren ordezkari; ordezkoa Ramón Martínez de Murgia Urreta jauna.

● Agustín Martínez Ibarguren jauna, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen ordezkari; ordezkoa Alberto Colina Alonso jauna.

● Juan Ignacio Goiria Ormazabal jauna, Jon Herrero Erquíñigo jauna eta Serafín Martín Corral jauna, Osasuneko sailburuordeak proposatuta.

● Sebastian Martin Moreno jauna, Osasun Saileko Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko zuzendariak proposatuta; ordezkoa Antonia Daza Gutierrez andrea.

● Nekane Elkoroiribe Cancelo andrea, Osasun Saileko Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko zuzendariak proposatuta; idazkari-lanetan jardungo du; ordezkoa Miguel Angel Echaniz Gil jauna.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko abenduaren 1a.

Osasuneko sailburua,
JON DARPÓN SIERRA.